Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
P3132500D
Tel: 012; 94813 22 22

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa-Navarra
ansoain@ansoain.es

| BANDOA | BANDO |
|---|---|
| Ikusirik COVID-19 birusaren hedapenak sortutako egoera eta Osasunerako Mundu Erakundearen atzo egindako pandemia adierazpena–. | Vista la situación creada por la propagación del virus COVID-19 y la declaración de pandemia realizada por la Organización Mundial de la Salud en el día de ayer. |
| Kontuan hartuta osasun agintariek pertsonen pilaketa jakin batzuk saihestea gomendatzen dutela, eta gomendatu beharreko irizpide nagusia prebentzioarena dela. | Considerando que desde las autoridades sanitarias se aconseja evitar determinadas aglomeraciones de personas y siendo el criterio principal a recomendar el de la prevención. |
| Alkate udalburuari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 3ko 7/1985 Legearen 21.1.m) artikuluaren arabera, aparteko eta presazko beharrizana dagoen kasuetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta Osoko Bilkurari berehala jakinaraztea. | Corresponde a la Alcaldía-Presidencia, en uso de las facultades que le confiere el art. 21.1.m) de la Ley 7/1985, de 3 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, adoptar las medidas necesarias y adecuadas en casos de extraordinaria y urgente necesidad, dando cuenta inmediata al Pleno. |
| **HONAKO HAU EBAZTEN DUT:** | **RESUELVO:** |
| 1. Antsoaingo Udalak antolatzen dituen udal jarduera guztiak etetea, bai eta udal instalazioetan egiten diren gizarte eta kultura ikastaroak, kirol ikastaroak, euskara ikastaroak, kultura ekitaldiak (antzerkia) eta denbora libreko jarduerak ere. | 1. Suspender todas las actividades municipales organizadas por el Ayuntamiento de Ansoáin así como aquellas desarrolladas en instalaciones municipales: cursos socioculturales, deportivos y de euskera así como eventos culturales (teatro) y actividades de tiempo libre. |
| 2. Idaki kirolgunea osatzen duten kirol eta gune hidrotermaleko udal instalazio guztiak ixtea. | 2. Cierre del conjunto de instalaciones deportivas e hidrotermales municipales del centro Idaki. |
| 3. San Cristobal Haur Eskolaren ixtea. | 3. Cierre de la Escuela Infantil San Cristobal. |
| 4. Antsoaingo liburutegi publikoaren itxiera eta Harrobi Gaztelekuarena. | 4. Cierre de la Biblioteca pública de Ansoáin y la actividad de la Casa de la Juventud Harrobi. |
| 5. Mendikale 8n dauden instalazioen itxiera (musika eskola, euskarako klaseen gelak eta bestelako aretoak). | 5. Cierre de las instalaciones ubicadas en la calle Mendikale 8 (escuela de música, aulas de clases euskera y resto de salas). |
| 6. Haurren parkeak eta kaleko gimnasioa ixtea (biosasunaren parkea) eta Iparraldeko Errondaren ibilbideko komun publikoak. | 6. Cierre de parques infantiles y gimnasio público (parque biosalud) y baño público del Paseo de la Ronda Norte. |
| 7. Euskal Herria plazako Txoko Gorriko | 7. Cierre de los locales de Txoko Gorri de la |

Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
P3132500D
Tel: 012; 94813 22 22

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa-Navarra
ansoain@ansoain.es

| | |
|---|---|
| aretoen itxiera eta Loza kaleko kulturgunea. | plaza Euskal Herria, Kulturgune-Centro Cultural de la calle Loza. |
| 8. Gizarte Zerbitzuak: hitzorduak dituzten pertsonei arreta emanen zaie. Telefono bidez eskatuko dira hitzorduak eta zalantzak ere hala argituko dira. Ahal den neurrian, telefono bidezko arreta lehenetsi behar da, bertara etorri beharrean. Telefonoz erantzungo dira Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuari buruzko zalantzak eta/edo kontsultak. | 8. Servicios Sociales: Se atenderá a las personas que tienen citas concertadas y se dispondrá de atención telefónica para la solicitud de citas o dudas, priorizando la atención telefónica sobre la presencial en la manera de lo posible. Se atenderán telefónicamente las dudas y/o consultas sobre el SAD (Servicio de Atención Domiciliaria) |
| 9. Udal bulegoetan jendaurreko arreta 09:30etik 13:30era izanen da. Beharrezkoa denean soilik joatea gomendatzen da, eta Administrazio Elektronikoa, telefonoa eta posta elektroniko bidezko kudeaketa erabili behar da ahal den guztirako. Jendeari arreta emateko telefono hauek daude: Herritarren Arretarako Bulegoa 948-13 22 22. | 9. La atención al público en las dependencias municipales se realizará en horario de 09:30 a 13:30 horas. Se recomienda acudir a las mismas sólo y únicamente si es estrictamente necesario y utilizar la Administración Electrónica y la gestión telefónica y vía correo electrónica para todo lo demás. Los teléfonos de atención al público son: Oficina de Atención al Público 948-13 22 22. |
| 10. Udalaren aretoak elkarteei lagatzea ere eten egiten da. | 10. La cesión de espacios municipales a asociaciones se suspende igualmente. |
| 11. Garbiketa zerbitzuek normaltasunez funtzionatzen jarraituko dute. | 11. Los servicios de limpieza seguirán funcionando con normalidad. |
| 12. Goian adierazitako neurriak ebazpena sinatzen denetik beste abisu bat eman arte aplikatuko dira. | 12. Las medidas arriba expuestas se comenzarán a aplicar desde la firma de la Resolución, hasta nuevo aviso. |
| 13. Ebazpen hau herritarrei jakinaraztea, Udal webgunean bandoak modu fisikoan eta elektronikoan jartzea; bai eta herriko komunikabide sozialen bidez zabaltzea ere, denek jakin eta bete dezaten. | 13. Notificar la presente Resolución a la ciudadanía mediante la colocación de bandos de manera física y electrónica en la web municipal, así como en medios de comunicación social de la localidad para su general conocimiento y cumplimiento. |
| **Antsoain, 2020ko martxoaren 13a** | **Ansoáin, a 13 de marzo de 2020.** |

Alkatea/ El Alcalde

ANTSOAINGO UDALA * AYUNTAMIENTO DE ANSOAIN *